

KIMU EGITASMOA 2015/16

AINARA GURRUTXAGAREN IKERLANA

*2016ko urriaren 6an Urruñan, Herri Elkargoaren egoitzan, KIMU egitasmoaren
sustatzaileen aurrean aurkeztua.*

EGINIKO IBILBIDEA:

BIXITATUTAKO JAIALDIAK:



MIME INTERNATIONAL THEATRE FESTIVAL

LONDON, UK

Noiz: 2016/01- 11tik 18ra

Ikusitako antzezlanak:

- *Nautilus*. Soho theatre
- *Marcel*. Shaw theatre
- *As you like it*. National theatre

FETEN NAZIOARTEKO HAUR ANTZERKI JAIALDIA

GIJON, ESPAINIA

Noiz: 2016/02- 23tik 27ra

Ikusitako antzezlanak:

- *Bhrava!* La Animé konpainia. (Espainia)
- *El viaje Redondo*. Teatro de ocasión.(Chile)
- *Pequeña Max*. Arena en los bolsillos.(Espainia)
- *Screen man*. Theatre de l'home dibuxat (Catalunia)
- *Atrapasueños*. La tartana teatro (Espainia)
- *Arturo y Clementina*. Titritran teatro. (Espainia)

- *Sin palabras*. Lasal teatro (Espainia)
- *Hilos*. La Rous (Espainia)
- *Momo*. Compañía Ana Roca (Espainia)
- *Montesín*. Kamante teatro. (Espainia)

FIMFA TXOTXONGILO JAIALDIA

LISBOA, PORTUGAL

Noiz: 2016/05- 08tik 18ra.

Ikusitako antzezlanak:

- *Sobre concetto di volto nel figlio di dio*. Roberto Castelucci
- *Objeto encontrado perdido*. Teatro da garagem. (Portugal)
- *Mucho ruido y pocas nueces*. David Espinosa (Espainia)
- *Singspiele*. Maguy Marin (Frantzia)
- *The assembly of animals*. Tim Spooner (UK)
- *Coulrophobia*. Pickled Image. (UK)
- *Meet grandma*. Pickled Image (UK)

J-365 WEEKEND MARIONNETTES

CHARLEVILLE MEZIERES, FRANTZIA

Noiz: 2016/09- 22tik 25era

Ikusitako antzezlanak:

- *La maison du grand pere*. Akxelere (Frantzia)
- *Tria Fata*. Compagnie La Pendue (Frantzia)
- *Whispers*. Cie Mosoux Bonté (Belgika)
- *The journal*. Between two hands (Netherlands)
- *Arthur*. Les enfants sauvages (Frantzia)
- *La gran tri*. Cie. Tumulte Orange (Frantzia)
- *Ma foi*. Compagnie A (France)

- *Petit theatre nomade*. Centre de creacions pour l 'enfance (Frantzia)

EUSKAL HERRIAN:

- *Amour*. Marie de Jong (EH)
- *Moby Dick*. Gorakada (EH)
- *Ez egin negar Marie*. Marie de Jong (EH)
- *Itsasoaren konkista*. Zaldain elkarte (EH)
- *Zirriborro*. Badut klown taldea.
- *Pinocho*. La baldufa (Espainia)
- *Txatarra*. Malas compañías (EH)
- *Alize*. Hand Made Theatre (Cataluña/Chile)
- *Red earth revisited*. Speeltheatre. (Hegoafrika)
- *Hariak*. Ertza konpainia. Asier Zabaleta (EH)

JASOTAKO IKASTAROAK:

"THE CHORUS AND THE ENSEMBLE: PLAYING WITH THE SURREAL" LONDON

2016/01 13 eta 14. Egun osoz. 16 ordu guztira.

Irakaslea: Clive Mendus. Complicité konpainiako kidea.

Azalpena:

Bruno Schultz idazle poloniarraren munduan eta beste hainbat testuetan oinarrituta, ikastaro honek koru tragikoaren bidez aztertuko du zein aukera dauden egunerokotasunetik surrealak diren eszenak sortzeko. Nola egin daitezkeen transizio horiek. Play edo jokoa oinarri hartuta, irudia eta esanahia nola uztartu ikasiko dugu, koruaren mugimendua erabiliz, aipatutako testuak oinarri hartuta, hunkigarria den absurdu baterantz egingo dugu bidaia, mundu fantastikoetako eszenak elkarrekin sortuz.

"ADAPTING THE ENCOUNTER"

LONDON

2016/01 15 eta 16. Egun osoz. 16 ordu guztira.

Irakaslea: Kirsty Housley idazlea. Complicité konpainiako kidea.

Azalpena:

Complicite konpainiaren momentuko ekoizpena, The Encounter izenekoa, Petru Popescu-ren Amazon Beaming nobelan oinarrituta dago. Ikastaro honetan antzezlanaren zuzendaritza taldeko kide Kirsty Housley idazleak nobelaren egokitzapena egiterako orduan bestelako antzerki materialekin naratiba nola elikatu daitekeen azalduko die ikasleei. Konpainiak egiten duen moduan, ikastaroa bera oso praktioa eta mugimenduan oinarritutakoa izango da, Complicite konpainiak entsegu gelan lanerako erabiltzen dituen tresna eta ariketak partekatuz.

"CLINICA DE LA OBSESIÓN. SEMINARIO PARA CREADORES"

DONOSTIA

2016/03 . Asteleheneretik ostiralera, 16.00etatik 20.00etara. 20 ordu guztira.

Victoria Eugenia antzokian (Donostia)

Irakaslea: Matias Umpierrez

Azalpena:

¿Cómo se delimita la geografía del universo creativo de un artista? Este encuentro acerca a los participantes a delimitar la tenaz persistencia que obsesiona y genera la pulsión creativa de un artista. Durante los encuentros se analizarán las obras de artistas que se han impuesto en el mercado contemporáneo de manera radical y cómo su ejemplo nos acerca a posibles metodologías para descubrir y enriquecer nuestro propio territorio creativo.

"ZUZENEKO BIDEOAREN ERABILERA ARTE ESZENIKOETAN"

ERRENTERIA

2016/12/19

Niessen Kulturgunea. 10.00etatik 19.00tara. 8 ordu guztira.

Irakasleak: David Aguilar eta Pello Gutierrez (Zaxzpi t´erdi ekoiztetxea)

Azalpena:

Ikastaro honen helburua oholtza ganean bideoaren erabilera desberdinen aukerak azaltzea da, bai eduki eta bai teknika aldetik.

Ikusentzunezko edukiak arte eszenikoekin batera erabilgarriak izan daitezke, hizkuntza desberdinak uztartuz. Horretarako, zuzenean bideoarekin aritzeko hainbat teknika eta programa ezagutuko dugu, eta antzerki edo dantzan izan ditzakeen erabilpenak aztertuko ditugu. Besteak beste, LIVE CINEMA, ZUZENeko ERREALIZAZIOA, MAPPINGa bezalako teknikak aztertu eta probatuko ditugu.

Ikastaroa oso praktikoa izan nahi dugu, eta arte eszenikoekin lotuta dauden sortzaileei zuzendua dago, teknika hauek haien proiektuetan erabiltzera bultzatzeko asmoz.

IKERLANA:

LIMBO PLANETA

HAURRENTZAKO ANTZEZLANAREN IDAZKETA ETA ZUZENDARITZA

Dejabu panpin laborategia nire konpainiarekin batera 2016an LIMBO PLANETA izeneko haurrentzako antzezlanaren sortzeari ekin genion. Ohi dugun moduan idazketa, antzezpena, eszenografiaren sortzea eta abarrak guk sortzen ditugu, kolektiboan. Nik zuzendari moduan, prozesu sortzaile hori elikatu egite dut eta nire postuari dagozkion erabakiak hartzen.

Haurrentzako gure antzezlan berrian errefuxiatuen egungo egoera lantzen ari gara, paisaia orokor gisa. Sakonagoko gaiak dira, bakardadea, irudimenaren beharra eta bidaiatzearen abentura ederra.

Numa izeneko neskatxa izango da protagonista. Errefuxiatuen kanpamendu batean bizi da eta ilargira bidaia egitearekin amesten du. Limbo txakurra eta irudimen andana lagun duela, espaziorako bidaia batean murgilduko gara ikuskizunean zehar.

Dramaturgia apunteak:

Haurren eta helduen antzerkia berdin sortzen dugu. Bizitzaren dinamikak oholtzaratzea, eta poetizatzea da gure helburua normalean. Mugimendua eragitea. Mugimendu kolektibo bat.



Niretzat, zuzendari moduan, garantzitsuak diren ideiak:

– **HAZIA**

Oso garrantzitsua. Hazi horrek berezko indarra eduki behar du. Zeren baitan: Antzerkia komunikazio ariketa bat da. Eta komunikazioan lehen urratsa komunikatzeko nahia da. Zerk mugitzen nau? Hor hasten da lehenengo mugimendua. Norberaren baitan. Ideia intelektualetatik errazago jaiotzen dira hildako antzezlanak. Zer da hildako antzezlan bat? Mugimendurik eragiten ez duena.

Hazi tranpatiak izan ditugu guk, ustez . Segituan nabaritzen da, zeren lanak ez du berez aurrera egiten eta esfortzu handiarekin, tiraka, bukatzen ditugu. Hori oso seinale argia izaten da.

Hazi horrek energia ikaragarria izan behar du, eta gero eta gehiago begiratu gero eta gehiago kargatzen da.

Gure kasuan garbi genuen errefuxiatuen gaia ukitu nahi genuela, haurren egoera konfliktu lurraldeetan eta era berean laguntasuna, ametsak eta abentura oso presente egongo zirela.

Hazi hori indartzeko OSO GARRANTZITSUAK dira inspirazio iturriak: artean, albisteetan, ikuskizunetan.

INSPIRAZIO NAGUSIAK kasu honetan: “Nacido en Gaza” dokumentala, haurren egoeran oinarritua (Zinn zuzendariarena), albisteak, “Notas a pie de gaza” Joe Sacco-ren komikia. Isaac Cordal artistaren lan plastikoa.

– LEHEN LANERAKO MATERIALAK, GIRO BAT ETA PERTSONAIAK

Kasu honetan neskatila bat izatea nahi genuen. Bigarren kidea izango zuenik ere ez genekien. Ondoren Numa bilakatu zen eta kide bat sortu zitzaion: Limbo, txakurra. Hasten gara gaiaren inguruko liburuak irakurtzen. Haurrekin konfliktu egoerei buruz nola hitz egin aztertze duten hainbat psikologo lanak irakurtzen ere bai.



– KAOSAREN TEORIA

Hazi hori, lan espaziora eramaten dugu. Gauzak hasten da ekartzen. Mugitzen hasten da eta ideiak, objektuak, giroak, espazioak iradokitzen ditu. Guk dena ekartzen dugu espaziora literalki. Antzokietako garbitzaileen ametsgaizto bihurtzen gara: Benetan plastiko zahar hau eta oihal zulatu hauek ez direla zakarretarako? Denari bere lekua ematen diogu espazioan.

Hor lehen lana hasten da antzezleekin. Jantzien laguntzarekin, mirenen kasuan pasamontañas gorria, eta gorputzetik abiatuta beti, ahotsa, ibilkera, begirada, arnasa... pertsonaia izango denaren lehen bozetoa ikusten hasten gara. Berdin Alvarorekin. Txakurraren fisikaltatea... Inprobisaketak egiten hasten gara, antzezle objektu, materiale eta trasterioarekin.



– BEGIRATZEA, ITXOITEA

Burua badakigu zer den eta urduri jartzen da, jakin nahi duelako nola antolatuko den kaos hori. Beldurra sartzen hasten da, batez ere antzezleei intseguritatea, ze kaka egiten ari gara? Momentu hau kritikoa izaten da, zeren badituzu banatzaileak galdezka ea saltzen hasi daitezkeen lana, eta zuk plastikozko oihal batean egindako efektu-itzal potente batzuk besterik ez dituzula sentitzen duzu.

Guk utzi egiten dugu dexente, eta galduak egotearekin sentsazioa gozaten saiatzen gara.

Intuzioak paper oso garratzitsua betetzen du momentu honetan.

Zuzendaritzatik oholtzara dinamikak proposatzeko momentua da. Eszena posibleak, ariketak jarritz.

– LENGOIAK FINKATZEN JOATEA.

Guri gustatzen zaigun estiloa badakigu zein den, antzezleak eta txotxongiloak nahasten dituen antzerki bat. Baina hor badago abaniko oso zabala, maskarak? Txotxongilo puristak? Bideo erabilera?

Praktikotasuna ere begiratzeko hasi behar da. Kotxean sartu behar du eta gero muntaia 4 ordutan egitekoa izan behar du.

– IDAZKETA KAOSA ORDENATZEA


Poliki poliki hasten da garbitzen eszena. Objektu batzuk argi eta garbi oholtzan egon nahi dute eta beste askok ez. Inprobisaketak argi eta garbi dago ze eszena izan diren hunkigarriak eta zein ez. Horiek zerrenda bat egiten da.

Guk beti bozetoak egiten ditugu eta espaziora ekarri.

Talde osoak idazketa bilerak egiten ditu, ideiak biltzeko.

– MUNTAKETAREN HASIERA

Idazketak orden bat ekartzen du. Beti sortzen dut “story board” bat prozesuan zehar. Hona hemen LIMBO PLANETArentzat eginiko bozeto batzuk.





Orain sormenaren puntu horretan gaude, non idazketa definitibo bat sortzen ari naizen, jada ondoren antzezleekin entseguetan hasteko. Garai horretan eraikiko dugu eszenografia, jantziak, musika, argio diseinua, antzezlanaren grafismoa. Gure asmoa, antzezlanaren, 2017ko udazkenean estreinatzea da.